



PRENTSA-OHARRA

Musika koraleko kontzertuen ziklo berria eskainiko da Santa Maria Katedralean, hamargarren urteurrenean

- Lurraldeko kultur agendan finkatuta dagoen programa da.
- 2024ko edizio honetatik aurrera, programaren izena 'Ahotsak Elizpean' izango da, ekitaldiak duen nortasuna nabarmentzearren.
- 2024ko edizio honetan, 20 taldek hartuko dute parte guztira, 5 kontzertutan, eta kontzertuak maiatzeko ostiral guztietan izango dira, maiatzaren 10etik hasita. Ekainaren 14an, azken kontzertua eskainiko da.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko maiatzaren 7an.- Gaur goizean, musika koraleko kontzertuen zikloaren edizio berria aurkeztu dute Santa Maria Katedralean; aurten, gainera, **hamar urte beteko ditu zikloak**. 5 kontzertu emango dira Elizpean maiatzeko ostiraletan, maiatzaren 10ean hasita, eta ekainaren 14an errezitaldi bat eskainiko da. Berrikuntza gisa, hemendik aurrera programaren izena 'Ahotsak Elizpean' izango da, ekitaldiak berak duen nortasuna nabarmentzeko asmoarekin.

Urtemuga horren garrantzia azpimarratzeko, prentsaurrekoan honako hauek hartu dute parte: **Kultura eta Kiroleko Foru Diputatua den Ana de Valek, Arabako Abesbatzen Federazioko ordezkariekin batera, eta Laboral Kutxako Komunikazioko zuzendaria den Kepa Ortiz de Urbinak eta Santa Maria Katedrala Fundazioko kudeatzailea den Jon Lasak**. Nabarmendu dute musika koraleko kontzertuen ziklo hau Fundazioaren agendan ez ezik, Arabako agenda kulturallean ere finkatuta dagoen programa dela.

Orain 'Ahotsak Elizpean' deituriko ekimenak jendetza handia biltzeaz gain, onarpen handia izan du edizioz edizio, eta herritarrek ehunka ahotsez eta erreperitorio ugariz gozatzeko aukera izan dute. Urte horietan, Lurraldeko abesbatza heldu guztiek parte hartu dute, garai, erregistro eta herrialde ezberdinetako abestiekin, musika koralararen adierazpen guztiak irudikatuz.

Ekimena **Santa Maria Katedrala Fundazioak eta Arabako Abesbatzen Federazioak** bultzatzen dute, eta **Laboral Kutxak babesten du**. Aurten, guztira, **20 talde arituko dira 5 kontzertutan**. Inaugurazio-kontzertua **maiatzaren 10ean, ostirala**, izango da, 19:45ean, eta Mairu Abesbatzak, Florida Abesbatzak eta Manuel Iradier Korakak eta Badaya Abesbatzak emango dute emanaldia.

FUNDACIÓN CATEDRAL SANTA MARÍA KATEDRALA FUNDAZIOA

Cuchillería, 93 · 01001 Vitoria-Gasteiz · www.catedralvitoria.eus

Prentsa / Prensa: Elena Benito - T. +34 94 403 40 50 - Ext.: 2501 - comunicacion@atedralvitoria.eus

Maiatzaren 17anb, berriz, Ausartak Abesbatza, Dultzinea Korala, Eguzkilore Abesbatza eta Canta Cantorum Abesbatza arituko dira. Hirugarren astean, **maiatzaren 24an**, Amalur Abesbatza, Urkanta Abesbatza, Erribera Beitia Abesbatza eta Enol Koralaren ahotsak eta errepertorioa entzungo dira. Eta, maiatzeko programa ixteko, **maiatzaren 31n**, Arantzabela Abesbatza, Kataliturri Abesbatza, Tantak Abestaldea eta Ahots Argiak Abesbatza arituko dira. 'Ahotsak Elizpean' ekimenak **ekainean** jarraituko du; zehazki, **ekainaren 14an**, Haritz Hostoa Abesbatza, Gurasoak Korala, Vicente Garcia Abesbatza eta Bi Hotsak Koralorekin.

Errezitaldi bakoitzerako **sarrera** doakoa izango da, baina aurrez gonbidapenak hartu beharko dira Bisitarien Zentroan (Santa Maria Kantoia, 3). Kontzertuaren asteko astelehen eta asteartetan, Fundatzaileen Zirkuluko kideen eskura jarriko dira sarrerak. Bestalde, herritarrek, oro har, asteazkenetik aurrera jaso ahal izango dituzte kontzertuaren astean. Kontzertu guztiak 19:45ean hasiko dira Katedralaren Elizpean. Jende asko biltzea espero denez, pertsona bakoitzeko bi sarrera banatuko dira.

FUNDACIÓN CATEDRAL SANTA MARÍA KATEDRALA FUNDAZIOA

Cuchillería, 93 · 01001 Vitoria-Gasteiz · / www.catedralvitoria.eus

Prentsa / Prensa: Elena Benito - T. +34 94 403 40 50 - Ext.: 2501 - comunicacion@atedralvitoria.eus